



**Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak,
senar-emazteak**
Alice Munro

Liburu honi izena ematen dion narrazioaren izenburua, nire eskuetatik inoiz igaro den izenbururik ez-iradokitzaileenetako bat dela esango banu, ez dut uste gezurrik esango nukeenik; izenburua, berez, itsusi totala iruditu zait, argi eta garbi esateko. Aldiz, narrazioa jeniala da, oso ongi planteatuta dago, eta gainera, etorri edo inspirazio handikoa da –ez da narrazio guztietan ikusten horrelako bertutea, ez horixe–. Batzuetan, ipuin edo narrazio bat lanaren, ahaleginaren eta beste arrazoi mekaniko batzuen ondorioa izaten da; baina kasu honetan, guztiorren fruitua izateaz gain, ipuin inspiratua, burutsua eta gatzduna ere bada. Chapeau.

Gainerako narrazioak ez nago oso ziur maila berean egotera iristen ote diren; nolana ere, liburu interesgarria da. Badirudi ez dela deusik gertatzen ari, baina, egia esan, beti ari da “zer edo zer” gertatzen, narrazio bakoitzean, ipuin bakoitzean. Oso genero “urbanita” dela esango nuke; zineman ere arrakasta handiko filmak egin izan dira hortik abiatuta: bizitza gurutzatuak, eguneroko tragedia txiki-handiak, non kontatzen baitira irakurle guztiengandik hurbil dauden istorioak, oraingoan Munroren ikuspegitik bahetuak.

Oro har, liburuko narrazio bati ekin diodan bakoitzean, papera eta bolaluma hartu eta atereaz zihozen pertsonaien izen-abizenak apuntatuz joan naiz, batez ere narrazioaren haria ez galtzeko, zeren, egitateak bereziki nabarmenak izan ez arren, narraziozko zama guztia pilatzen baita pertsonaietan beraietan eta dagozkien familia-historietan, ekintza gogoangarrietan baino gehiago.

Munroren hizkera ez da oso sofistikatua; erretorikoki esanda, ez da bereziki oparoa alde horretatik, baina bere helbururako balio du: gris samarra den egoera jakin baten aurrean irakurlea jartzea, nonbaitera iristeko. Nora? Ez dago oso garbi, baina tristezia eta nostalgia azaleratzen dituen leku bat da.

Bigarren ipuinak, “Zubi flotatzailea”k alegia, maila nabarmen jaisten du lehen narrazioarekiko; ez du aurrekoaren inspirazioa eta gatza, inondik inora ere ez. Agian, ideiarik politena hori da, horrelaxe sentitzen dela egilea eta horrelaxe sentiarazi nahi duela irakurlea: bizitzan zehar zubi flotatzaile batetik ibiliko bagina bezala. Tira, iradokitzailea da, ezta? Eta Munroren ipuinek bilatzen dutena hori dela uste dut: iradokitzea. Asko al da, gutxi al da? Ez dakit... Ni ez nau deseroso sentiarazi. Gainera, han-hemen beti azaltzen dira xehetasunak... Izan ere, xehetasunak Munroren munduaren parte garrantzitsua direla uste dut; eta xehetasun horiek helburu nagusi horren zerbitzuan daude: iradokitzearen zerbitzuan.

Hirugarren narrazioan, “Familiaren altzariak” izenekoan, Munroren “leitmotiv”etako beste bat azaltzen da, baita bizitzaren zikloa ere: bizitzea, zahartzea, hiltzea. Zenbaitetan pertsonaien harremanak tirabiratsuak dira, egokitu zaien ingurunera guztiz egokitzen ez diren pertsonak sufritutakoak, edota belaunaldi batetik bestera gehitxo urruntzen direnek ordaintzen duten prezioa... Narrazioa giro urbanita eta gris horren barruan bilakatzen da: bizitzako betiko kontuak, senideen arteko harreman minimalistak, oinarritzko kezka...

Gero, “Kontsolamendua” izeneko narrazioa dator. Hemen ere gaixotasuna eta heriotza ditugu ardatz, bertatik abiatzen baita Munroren kontakizuna. Protagonistaren senarra esklerosiaz gaixotu eta zendu egiten da azkenean. Lizeoko irakasle borrokalaria, aurrerakoia izana zen, herriko negazionista erlijiosoen integrismoaren etsai amorratua. Zientzia-zale eta arrazoi-zale peto-petoa alegia. Hau ere Munroren beste ezaugarri bat da: buru argiko eta irekiko pertsonaiak, ezkertiar senideak eta guzti izan dituztenak (hori Estatu Batuetan ez da gutxi...), eta berriro irrealtasun-sentsazioa, heriotzaren aurrean oraingoan, gorpu bat azken despedidarako egin beharreko prestaketen aurrean, pertsonaia nagusia (emakume bat, normalean) ametsetan balego bezala... Bai, Munroren errealitateak “amets” itxura du, eta haren pertsonaiak “tentuz” ibiltzen dira ametsezko errealitate horretatik, ziurtasuna faltako balitzaie bezala...

Bosgarren narrazioa, “Asunak”. Fideltasunik eza, Munroren munduan errepikatzen den beste gai bat. Bi nerabe. Mutila bidez zegoen herri hartan, haren aita hilabete batzuetako lantxo batzuk egiten baitzebilen neskaren etxaldean eta inguruko beste batzuetan; gero, elkarrengandik bereizi beharra bizipen garratz bilakatzen zaie, eta handik urte askotara, biak familiadunak jada, berriro suertatzen dira elkarrekin. Emakumearen senarrak lankide berri bat aurkezten dio, etxean bertan, eta... orduko mutiko bera da!, gizon egina ordurako, ezkondua eta gurasoa, bera bezala. Argumentua ondo pentsatuta dago; narrazio honek ere badu etorria, ipuinaren originaltasuna dudan jartzen badut ere; nire ustez, zinemagintzak ordurako emanak zeuzkan era horretako egoera askotxo. Are, topiko samarra dela esango nuke: ezkonduz geroztik, ustekabean agertzen den garai bateko maitalearen etorreraren topikoa. Dena den, oso ongi planteatuta dago. Nerabazaroko maitasun zahar batek maila ertaineko emakume amerikar baten familia-bizitza kordokatzen du. Ate bat irekiko balitz bezala... tabu hutsa zen (eta den) gai bati sarrera eginez: emakume ezkondu eta seme-alabadun baten desleialtasuna (ez dezagun ahanztu Munro 1931n jaio zela, Ontarioko landa-eremu batean). Garai hartan, “apurtzaile” gerta zitekeen, gaur hainbeste ez (nongoa zaren...). Azkenean, ez dago desleialtasunik, urtikaria itxurapean bere “aztarna” uzten dien asun-sail bat baino ez. Bestalde, emakume protagonistaren laguna ere hor dago, beste emakume ezkondu bat, seme-alabak ere bazituena eta familia abandonatu zuena literatura idazteko, bizimodu bohemioan murgiltzeko eta sexu-bizitza aktiboagoa izateko... Munroren emakumeek sexu-bizitza aktiboa izateko joera dute, edo premia hori sentitzen dute (zerbaiti emandako erantzuntzat ere uler daitekeena).

“Zuraje ageria” narrazioan Munroren mundua berriro errepikatzen da, neurri batean: senar-emazteak, ezkontzatik kanpoko harreman bati ekiteko desira, nahiz eta desira hori

azkenean hutsean gelditu; familiako bizimodua hankaz gora jartzen duen senide baten etorrera; ahantzian eroritako familia-loturak; belaunaldien arteko urruntasuna; landa-giroa eta hiri-giroa... Batez ere, emakume protagonisten transgresioak irauten du bere horretan. Horrek 50eko hamarkadako emakumeen ondoeza islatu lezakeela uste dut, hau da, garaiko gizarteak haientzat (emakumeentzat) erreserbaturik zeukan rolaerikiko ondoeza: emazte zintzoak, etxeoandre sakrifikatuak, seme-alabak besterik gogoan izan behar ez zuten amatxo maiteak, familia osoaren zaintzaile abnegatuak...

“Gogoratzen dena” narrazioan ohiko osagaiak azaltzen zaizkigu berriro; oraingoan, baina, desleialtasuna gauzatu egiten da. Protagonista ustekabeko aukera batez baliatzen da “ihesalditxo” bat egiteko, baina segituan familiara –segurtasunera– itzuliz. Ezkontzatik kanpoko abenturatxo bat. Munroren emakumeek, esan bezala, egoera horiekiko joera handia baitute. Bilatu egiten dituzte horrelako egoerak, abenturatxo bat besterik izango ez direla sumaturik batzuetan, eta noraino eramango dituen garbiegi ikusi gabe beste batzuetan. Areago, arriskatzen diren uneak ere badaude, orokorrean egoeraz jaun eta jabe izaten badira ere. Ez dira emakume bereziki erromantikoak; edo, bai, badira, baina aldi berean ez...

“Queenie”. Hemen bi protagonistak ahizpaordeak dira, horrek aurrean jartzen digun familia-eskema gero eta ohikoagoa zen orduko gizarte amerikarrean, familia tradizionalaren eskemak neurri batean funtzionatzeari utzi ziolako eta gizon-emakumeen arteko harremanak aldatuak zirelako. Landa-eremutik datorren neska gaztea azaltzen zaigu berriro, bere lehen lanaren bila, errealitate berri horretan murgiltzeko irrikan, eta batez ere, bere lekua bilatu nahirik gizarte (berri) horretan. Munroren munduan agertu ohi den automobilaketa ere antzematen da..., generokotzat ere jo daitekeena. Gero, bidez-edo agertzen diren pertsonaiak daude, hiriaren eta hirira iritsi berriak diren emakumeen gaineko ideia bat ematen duten pintzelkada azkarrak bezalakoak dira. Nire ustez, horrek nahiko garbi sinbolizatzen du emakumeek egin beharreko jauzia: etxeo konfinamendutik gizartera, askatasunera, korapilora...

Eta azkenik, beste narrazio handi bat, “Hartza mendi gainera igo zen”, zeinak liburuari azkena ematen baitio. Ipuin hau ere lehendabiziko ipuinaren maila berean dago, gutxienez. Berriro ere gaixotasuna, adinekoen egoitzak, zikloaren amaiera... Baina hor ere berriro sortzen da (intentsitate handiz sortu ere) erakargarritasuna, maitasuna, gizon-emakumeen arteko loturak...Gizon-emakumeen arteko harreman intimoek energia agorrezin bat osatuko balute bezala. Kasu honetan, ordea, ustekabeak daude, deabruzko egoera bat: Alzheimerrez gaixoturiko emakumeak (Fiona) topo egiten du Alzheimerrez ere gaixoturik dagoen gaztaroko galai zahar batekin (Aubrey), hau da, egoitza berean suertatzen dira biak; berehala, bata bestearikiko erakargarritasun itzela sortzen da, euren senar-emazteengan sorrarazten duten egoeraz jabetu gabe. Baina ustekabeak ez dira hor amaitzen... Ipuin honetan atentzioa ematen du senar atsekabetuaren jarrera altruista, eskuzabal eta hiperzibilizatuak: Aubreyrengandik bananduta, bere emazte Fiona nola itzaltzen den ikusi baino lehen, nahiago baitu beste albo batera begiratzea eta bi maitale Alzheimerdunek elkarrekin jarrai ditzaten neurriak kontzienteki hartzea. Ustekabe

gehiago ere badaude, narrazioari amaiera ematen diona itzela izanik. Baina hori ez dizuet kontatu nahi. Hobe zuek irakurtzea...